



BILBOKO
HIRUHILEKO
KOIUNTURA
TXOSTENA
2022

Bilbao Observatorio

LABURPENA

2022ko lehen hiruhilekoko datuetan jarduera ekonomikoak eta hiribilduko enpleguak berreskuratze ahalmena dutela ikusten da pandemiaren inpaktuak baldintzatutako azken bi urteetan (2020-2021) izandako egoera ez-ohikoa eta gero. Hala ere, bi faktore ezegonkortzaile daude eta urteko emaitzak baldintzatuko dituzte eta berreskuratzearen erritmoa "moteldu" dezakete. Alde batetik, inflazioa, 2021eko laugarren hiruhilekotik gertatzen ari zena, eta beste alde batetik, Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerraren ondorioak.

2022ko lehen datuak positiboak izan ziren, baina, ziurgabetasun asko zeuden

Joera inflazionista 2021eko udazkenean hasi zen (energiaren prezioak) eta arriskua nabarmena zen gainerako ondasun eta zerbitzuen prezioetan ere nabaritu zelako, eta gainera, soldaten balio handitzeetan eragin zuen. Ondorioz, baliteke lehiakortasuna galtzea, eta arazoaren hedapena ikusirik (ekonomia nagusietan inflazioa gertatzea), posible da azkenean aurreikusi zena baino txikiagoa izatea.

Inflazioaren arriskurik handiena lehiakortasuna galtzea da

Pandemiak sortutako krisitik ateratzeko prozesua baldintzatuta zegoen jada ondasun fluxuetako itotze eta botila-lepoengatik, eta sektore batzuk bereziki kaltetuta zeuden. Une honetan, gerra krisiak eta Txinako pandemiaren kontrolak (350 milioi pertsona baino gehiago daude konfinatuta) zailtasunak areagotuko dituzte, izan ere, energia merkatuen eta zenbait bitarteko produkturen eta lehengaien prezioak tenkatzen ari dira eta are zailagoak dira nazioarteko merkataritzaren fluxuak, eta bereziki, zalantzarikotasuna gehitzen dute epe motz eta ertainean.

Errusiak sortutako gerra gatazkan irtenbidea aurkitu behar da berehala...

Eta Txinan pandemia kontrolatzeko neurrien ondorioak etortzeke daude

Horren guztiaren ondorioz, 2022rako hazkunde ekonomikoko aurreikuspenak nabarmenki gutxitu dira, eta berriz ere, gertatu ez den hazkundearen zati bat 2023rako atzeratu da. NDFk aurreikusi zuen munduko hazkundeak $+4,4\%$ eta $+3,8\%$ izango zela, bi urteetarako $+3,6\%$ gutxitu baitzuen. Doikuntza hori ehuneko puntu bat ingurukoa da eta ekonomia guztietan aplikatu da, eta erakundeak inflazio arriskua dagoela ohartarazi zuen.

Hazkunde aurreikuspenak gutxitu egin dira orokorrean

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak bere aurreikuspenak (2021eko abendukoak) berrikusi zituen martxoan eta 2022rako euskal ekonomiarako aurreikusitako hazkundeak bi puntutan gutxitu zuen ($+6,7\%$ tik $+4,5\%$ era) eta osagai guztietan beheranzko doikuntza ezarri zuen.

Euskal ekonomia $4,5\%$ haziko da 2022an eta $4,1\%$ 2023an

Eustaten Hiruhilekoko Ekonomia Kontuen aurrerapenak BPGd-ren $+5,7\%$ ko eta enpleguaren $+5,0\%$ ko urte arteko hazkundeak jaso zuen urteko lehen hiruhilekoan. Emaitza horiek Eusko Jaurlaritzako martxoko aurreikuspenekin lerrokatuta daude ($+5,6\%$ BPGd-rentzat 2022ko lehen hiruhilekoan).

Euskal ekonomia $5,7\%$ hazi zen lehen hiruhilekoan

Faktore kezkagarria inflazioa da. EAEn urte arteko $9,5\%$ ko hazkundeak erregistratu zuen martxoan (KPI orokorra), baina $3,6\%$ koa da azpiko inflazioan (prestatu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabeko KPI). Egoera inflazionista hori inguruko ekonomietan ere gertatzen ari da, baina, inpaktu mailak ezberdinak dira.

Inflazioa faktore kezkagarria da

Hala ere, urteko lehen hiruhilekoko adierazleen emaitzek baieztatzen dute Bilboko ekonomiaren jarduera eta enplegua etengabe hobetzen ari direla. Bilbon 182.949 afiliatu zeuden martxoan eta hiruhileko arteko hazkundeak $1,8\%$ koa zen, eta horrenbestez, hiribilduan pandemiaren aurreko mailak berreskuratu dira. Horren arrazoia izan da araubide orokorreko afiliazioa ($+2,0\%$), etxeko enplegukoa ($+1,3\%$) eta beste araubideetakoak ($+9,3\%$) gehitu egin direla, eta konpentsatu egiten dute enplegu autonomoaren jaitsiera ($-0,1\%$).

Bilbon martxoan erregistratu zen afiliazioa pandemiaren aurreko mailakoa zen (2019), 182,9 mila pertsonekin

Bestalde, 2022ko lehen hiruhilekoan 31.248 kontratu formalizatu zitzaizkien egoiliarrei, eta zifra hori 2021ekoa baino % 19,8 handiagoa da, baina, 2021eko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta zertxobait txikiagoa da (-% 19,5). Kontratazio urte arteko berreskuratzea zerbait handiagoa izan zen emakumeen artean (+% 25,7) gizonen artean baino (+% 14,3), eta hobekuntza adin talde guztietan gertatu zen.

Erregistratutako kontratu berriak hobetu egin dira orokorrean urte artean

Berreskuratze horretan garrantzitsua da kontratazio mugagabeen dinamismoa 6.371 kontratu berrirekin, eta horiek handitzen dute hiruhileko arteko eta urte arteko tasa (+% 46,3 eta +% 94,5) eta agerian uzten dute aldi baterako kontratazioan lan erreforma berriaren ondorioz ezarritako mugen efektua. Modu horretan, formalizatutako kontratu berrien % 20,4 mugagabeak dira, eta horrek hautsi egiten du % 10eko kopurua ez gainditzea eragiten zuen sekuentzia "tradizionala".

Kontratazio mugagabeak gehitu dira (+% 46,3 eta +% 94,5 hiruhileko arteko tasan eta urte arteko tasan)

Enplegua berreskuratzen ari den egoera honetan, Bilbon erregistratutako langabeziak beherantz jarraitzen du "modu progresiboan", eta urte arteko jaitsiera handia izan da (-% 9,8), nahiz eta hiruhileko artean igoera txikia erregistratu (+% 2,7). Modu horretan, martxoko datuak (22.739 pertsona) pixka bat gainditzen du pandemiaren aurreko datua (22.301, 2019ko abenduan).

Erregistratutako langabezia tasak beherantzko joera mantentzen du (-% 9,8ko urte arteko tasa), baina, igo egiten da abenduko itxierarekin alderatuta (+% 2,7)

Urte arteko gutxitzearen eta hiruhileko arteko igoera txikiaren dinamika hori kolektiboaren artean gertatzen da, bai generoaren, adin taldearen eta/edo langabezia aldiaren arabera, eta laguntza ekonomikoak jasotzearen edo ez jasotzearen baldintzarekin lotuta dago baita ere. Modu horretan, langabeen % 55,4 emakumeak dira, % 54,8k 45 urte baino gehiago ditu, % 45,6k urtebete baino gutxiago darama langabezian eta % 71,3k ez du inolako prestaziorik jasotzen.

Jarduera ekonomikoari buruzko datuek -2021eko laugarren hiruhilekoak eta oso partzialki 2022ko lehenengokoak- berreskurapena baieztatzen dute eta oraindik ez dira ikusten egungo nahasmenduen inpaktuak, nagusiki, inflazioari lotutakoak. Horren haritik, 2021eko laugarren hiruhilekoan merkataritzaren sektoreko salmentek gora egin zuten (+% 9,9), eta handizkako (+% 16,4) eta txikizkako (+% 6,0) segmentuetan berreskuratu egin zen; ibilgailuen salmenta eta konponketaren segmentuak, berriz, atzera egin du berriz ere (-% 9,7). Oro har, merkataritzaren sektorean enpleguak hobera egin du hirugarren hiruhilekoz jarraian (+% 3,1).

Laugarren hiruhilekoan merkataritzaren sektorean gora egin dute salmentek (+% 9,9) eta enpleguak (+% 3,1)

Bidenabar, Bizkaiko merkataritza gunen handien salmenta indize orokorrak gora egin du berriz ere 2022ko lehen hiruhilekoan (+% 4,8), eta aurreko hiruhilekoetako hobekuntza sekuentziari eutsi dio. Gainera, enpleguak nabarmen egin du gora (+% 7,0).

...eta saltoki handietako salmentek (+% 4,8) eta enpleguak (+% 7,1) ere gora egin dute

2022ko lehen hiruhilekoko Bizkaiko ibilgailu berrien salmenta eta matrikulazio datuek zailtasunak erakusten dituzte jardueraren sektore horretan: 2.363 ibilgailu berri matrikulatu ziren eta urte arteko jaitsiera % 22,7koa izan zen. Azken finean, zifrak oraindik ere 2019an erregistratutako batez besteko hiruhilekoko matrikulazio kopurutik (5.067 unitate) oso urruti daude.

2022 hasieran hiruhileko arteko jaitsiera berria gertatu zen ibilgailu berrien salmentan

2022ko hasierako jardueraren turistikoaren zifrek egiaztatzen dute oso progresiboki hobetzen ari dela jardueraren: 281.944 ostatu gau eta 158.042 bidaiarien sarrera egon ziren, eta zifra horiek hiribilduan 2020ko lehen hiruhilekoan (ia pandemiarik gabe) erregistratu ziren zifren oso antzekoak izan arren, 2019ko lehen hiruhilekoko kopuruetatik oso urrun daude. Segmentu nazionalaren berreskurapena baieztatu da, baina, nazioarteko segmentuak oso ahul jarraitzen du. Aste Santuko lehenengo datuen arabera, apiril bukaerako datuak oso positiboak izango dira. Halaber, urte osorako itxaropenak oso positiboak dira, baina, egungo

Turismo jarduerak hobera egiten jarraitzen du, baina 2019ko erregistrotik urrun dago

Berreskuratzea hobekuntza ibilbidearen narriadurak baldintzatzen du

egoera dela-eta okertu daitezke. Hiru faktore hauek eragiten dute nagusiki: erregaien prezioa (garraioa garestitzea), inflazioaren inpaktua (pertsonek errenta eskuragarria gutxitzea) eta gerra zalantzagarritasuna (helmuta turistikoak aldatzea).

Loiuko jarduerak hobekuntza jarraituko profila baieztatzen du, eta 2022ko lehen hiruhilekoan 690.568 bidaiari eta 7.355 hegaldi egin ziren, eta zifra horiek hobetu egiten dute 2021eko egoera larria, baina, oraindik ez dira 2020ko ezta 2019ko zifretara iristen. Aerodromoko jardueraren arrazoia osagai nazionala izan da bidaiarien % 73,4 baititu, baina kopuru hori 2020ko lehen hiruhilekoko ia normala zen zifratik oso aldenduta dago (% 61,8). Emaizta horrek baieztatu egiten du nazioarteko fluxuen berreskuratzeari lotutako hobekuntza tartea.

Loiuk hobetzen jarraitzen du nazio mailako jarduerari esker

Baina Bilboko Portuaren jarduerak ez du finkatu hobekuntza bidea eta 2022 hasieran urtariletik martxora arteko emaitza metatua oraindik negatiboa zen, nahiz eta azken hilabetean (martxoan) oso negatiboa izan zen hasiera (urtarrila-otsaila) konpentsatu zen.

Portuetako trafikoaren urte arteko kopuruak gutxitu egin dira (-% 2,7)

Bizkaiko industria jarduerak hobekuntza bidea jarraitzen du eta lau hiruhilekoz jarraian urte arteko hazkundea gertatu da. Hala, 2022ko lehen hiruhilekoko behin-behineko datuak (urtarrila-otsaila % +8,8) oso positiboak dira eta manufakturen industriaren hobekuntza handian (+% 5,6) oinarritu dira. Horrez gain, erauzketa industriaren, energia, gasa eta lurrun industriaren eta ur industriaren dinamismoa handia izan da (hurrenez hurren +% 66,7, +% 30,5 eta +% 9,7) eta segmentu hori azkenean ere berreskuratzen hasi da.

Bizkaiko industria jarduerak hazi egin zen (urtarrila-otsaila)

Azkenik, oraindik ez dago lehen hiruhilekoko informazio eguneraturik, baina merkatu zerbitzuen jarduerak hiru hiruhileko positibo batzea lortu duela azpimarratu behar da, eta laugarren hiruhilekoa nabarmena izan da salmenta eta enpleguan (+% 14,2 eta +% 0,4 urte arteko tasan), eta hainbat jardueratan izandako salmentek bultzatu dute emaitza hori, besteak beste, ostalaritzan (+% 50,0), garraioan eta biltegiatzean (+% 31,7), beste batzuen ahultasuna orekatuz, esaterako zerbitzu profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (-% 4,9).

Merkatu zerbitzuak berreskuratu egin ziren (2021)

Bilbao-Bizkaia 2022 emaitza gazi-gozoekin hasi du: afiliazioa hobetu da baina langabezia pixka bat igo da eta baliteke jarduerak ekonomikoa (EAEko aurrerapen datuekin) % 1 hazi izana hiruhileko artean, hobetzen jarraitzen duen industria jardueran oinarrituta. Zerbitzuen jarduerak aldiz progresiboki jarduerak atzeratuenak sartzen jarraitzen du pandemia ondorengo berreskuratze prozesuan (turismoa, ostalaritza, aire bidezko garraioa, eta abar). Hala ere, segmentu batzuk atzean jarraitzen dute, adibidez ibilgailu berrien salmentak eta portuetako jarduerak.

2021eko itxierak eta 2022ko hasierak (urtarrila-otsaila) aurreikusten dute 2022 positiboa izango dela

Laburbilduz: hiribilduan eta inguruko ekonomietan erronka nagusia inflazioaren inpaktua eta horren ondorioak dira, eta gerra gatazkaren gertatzen ari diren baita ere. Pandemiako krisitik ateratzean nazioarteko agintaritzaren ekintzak berberak izan ziren (koordinazioa eta funts eskuragarritasuna). Gaur egun bateratasun hori "ez da hain nabaria" eta ikusteke dago krisi berri honen inpaktu indibidualizatua (lehiakortasun galera) nolakoa izango den, izan ere, 2022ko hazkunde ekonomikoko itxaropenak gutxitu ditu.

Inflazioa eta gerra gatazka: nahasketa horrek urteko itxaropenak gutxitu ditu

TESTUINGURUA

Munduko ekonomia

Ukrainako gerrak epe motz eta ertainerako aurreikusitako berreskuratze ekonomiko guztiak estutasunean jarri ditu. Ukrainako herriaren giza tragedia izugarria albo batera utzi gabe, Errusiako ekonomia itotzeko ezarri diren nazioarteko zehapen guztiek ondorio ekonomiko larriak sortuko dituzte mundu osoan. Pandemiaren ondorengo egoera ekonomikoak nolabait ona zirudien arren, berreskuratze ekonomikoa ez zen osoa eta ezberdina zen askotariko zona geografikoetan.

NDFk 2022rako eta 2023rako hazkunde ekonomikoa beherantz berrikusi du

Horren guztiaren ondorioz, Nazioarteko Diru Funtsak beherantz berrikusi zituen 2022ko apirilean munduko hazkunde ekonomikoko proiektzioak (2022ko urtarrila) eta 2022rako eta 2023 % 3,6n kokatu zuen (-0,8 eta -0,2 ehuneko puntu). Noski, gerraren ondorioek Errusiako 2022ko ekonomiaren emaitzak kaltetuko dituzte (-% 8,5) eta 2023an hobetu egingo dira (-% 2,3) gatazkaren inpaktua arintzen den bitartean.

Hazkunde ekonomikoan (BPGd) egindako aurreikuspenak, data hauetan egindakoak...

Urtetik urterako aldakuntza tasa, %

	Urt-22			Apir-22	
	2022	2023	2021	2022	2023
MUNDUKO BPGd	4,4	3,8	6,1	3,6	3,6
Ekon. aurreratuak	3,9	2,6	5,2	3,3	2,4
Ameriketako Estatu Batuak	4,0	2,6	5,7	3,7	2,3
Eurogunea	3,9	2,5	5,3	2,8	2,3
Alemania	3,8	2,5	2,8	2,1	2,7
Frantzia	3,5	1,8	7,0	2,9	1,4
Italia	3,8	2,2	6,6	2,3	1,7
Espainia	5,8	3,8	5,1	4,8	3,3
Hazten/garutzen ari direnak	4,8	4,7	6,8	3,8	4,4
Txina	4,8	5,2	8,1	4,4	5,1
India	9,0	7,1	8,9	8,2	6,9
Brasil	0,3	1,6	4,6	0,8	1,4
Errusia	2,8	2,1	4,7	-8,5	-2,3

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza (data bakoitzari dagozkion aurreikuspenak)

Apirilean urtarrilari buruz egindako berrikuspenean ikusi zen Ameriketako Estatu Batuen hazkunde ekonomikoa beherantz doitu zela, 2022rako +% 3,7 eta 2023rako +% 2,3 hurrenez hurren. Euroguneko ekonomia nagusietan berreskuratzea aurreikusitakoa baino motelagoa izango da baita ere. Alemaniarentzako aurreikusitako hazkundeak +% 2,1 eta % 2,7koa da, Frantziakoa +% 2,9 eta +% 1,4koa eta Italiakoa +% 2,3 eta +% 1,7koa. Espainiako ekonomia Europako dinamikoena da eta 2022rako eta 2023rako hazkundeak +% 4,8 eta +% 3,3koak dira hurrenez hurren. Hazten/garutzen ari diren ekonomien berrikuspenen norabidea berbera da, eta hazkundeko sekuentzia estimatuak India jartzen du lehendabizi (+% 8,2 eta +% 6,9), eta jarraian Txina (+% 4,4 eta +% 5,1), eta Brasilen handitze kopuruak txikiagoak dira (+% 0,8 eta +% 1,4).

Aurreikuspenen asmatze maila hein handi batean hauen menpe egongo da: Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerraren bilakaera eta horrek nekazaritzako lehengaien (adibidez garia eta artoa) prezioetan izango duen inpaktua, industria osagaien hornidurarik ezaren maila, eta/edo energia produktuen (besteak beste gasa, argia edo petrolio) garestitzea; gaur egun Brent upelaren balioa 100 dolar baino gehiagokoa da. Gauzak horrela, martxoan eta apirilean Txinan pandemia kontrolatzeko ezarri ziren muga eta konfinamenduak gehitu ziren.

Etkeen konfiantza eta aurrezpena

	2019	2020	2021	II	2021 III	IV	2022 I
Etkeen konfiantza¹ eta ² (-100; +100)							
EB-27	-6,4	-14,9	-8,8	-6,5	-5,7	-8,0	-13,3
Espainia	-7,1	-26,0	-13,4	-11,1	-9,1	-10,8	-16,2
Etkeen aurrezpena³ (gordailuak); Δ % urte artekoa	5,6	7,8	4,7	5,6	5,4	4,7	4,9

1. 2019ra arte, EB-28; 2. Hiruhilekoko datuen urteko batez besteko datua. 3. Hiruhilekoko datua, hiruhileko bakoitzeko azken hilabeteko itxierarena. 2022ko lehen hiruhilekoa (behin-behinekoa), otsailari dagokiona. Iturria: Eurostat, Espainiako Bankua

Europako eta Espainiako kontsumitzaileen 2021eko konfiantza maila pixkanaka berreskuratu da, nahiz eta balioak negatiboak izan, eta pandemiaren une larrietatik urruntzen doaz. Hala ere, datu berrienek ez dute joera bera erakusten, eta etkeen konfiantza mailak okerrera egin du (-10,8 eta -16,2 Espainiako etxeetan 2021eko IV. hiruhilekoan eta 2022ko I. hiruhilekoan), izan ere, egoera ekonomikoa ezegonkorra da eta prezioak igotzen ari dira, bereziki, energiarenak.

Etkeen konfiantza gutxitu da (Espainia eta EB-27)

Beraz, etkeen jokaera zuhurra da nagusiki. Hala, Espainiako etheen aurrezpen tasa (banku gordailuak) gorantz mantentzen da (+% 4,9 2022ko lehen hiruhilekoan) eta aurreikusi da pandemian metatutako aurrezpena ez dela bideratu oraindik ere inbertsio eta/edo kontsumo erabakietara.

EAEko ekonomia

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2022ko martxoan EAEko BPGd-ren hazkunde aurreikuspenak berrikusi zituen (+% 4,5 eta +% 4,1 2022an eta 2023an), eta otsaileko aurreikuspenekin alderatuta beheranzko zuzenketa egin zuten (-2,2 puntu). Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak jakinarazi du indarrean jarraitzen duten pandemiako ondorioek eta gerra gatazkan sortutako efektuek euskal ekonomia zalantzaragarrtasun egoera handian sartu dutela. Hori dela-eta, baliteke hazkunde aurreikuspenak okertzea, gertaerek zein norabide hartzen dutenaren arabera.

Zalantzaragarrtasun egoera EAEko hazkunde ekonomikoko aurreikuspenetan baita ere

Egoera berri horretan, Eusko Jaurlaritzak 2022rako barne eskariaren (+% 4,8, -1,5 puntu), etxeetako kontsumoaren (+% 4,8, -1,8 puntu) eta kapital finkoaren eraketa garbiaren (+% 5,0, -3,5 puntu) berreskuratze itxaropenak beherantz berrikusi zituen. Bestalde, kontsumo publikoa hobetu egin da abenduan egindako aurreikuspenarekin alderatuta (+% 3,2, +0,4 puntu) eta kanpoko saldoaren ekarpena negatiboa bihurtu da (-% 0,3, -0,7

puntu). Hainbat sektoreen hazkunde aurreikuspenei dagokienez, zerbitzuek bilakaera hobea izan dute (+% 4,8), gero industria eta energia (+% 3,9) eta eraikuntza daude (+% 3,4) eta lehen sektorearen aurreikuspenak atzerakoak dira (-% 1,4).

Euskadi. Agertoki makroekonomikoa

Urtetik urterako aldakuntza tasa, %


	2022p				2022p	2023p
	I	II	III	IV		
BPGd	5,6	4,0	4,1	4,1	4,5	4,1
Etxeetako kontsumoa	5,9	4,4	4,6	4,3	4,8	4,0
Kontsumo publikoa	2,9	3,5	3,0	3,5	3,2	2,6
Inbertsioa (KFEG)	5,8	5,0	4,6	4,4	5,0	4,3
Barne eskariaren ekarpena	5,6	4,6	4,5	4,4	4,8	3,9
Kanpo saldoaren ekarpena	0,0	-0,6	-0,4	-0,3	-0,3	0,2
Lehen sektorea	7,6	-7,5	-6,2	1,6	-1,4	-5,5
Industria eta energia	4,7	3,5	3,8	3,7	3,9	4,2
Eraikuntza	2,8	3,4	3,5	4,0	3,4	4,0
Zerbitzuak	6,1	4,3	4,4	4,4	4,8	4,2

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (hiruhileko txostena), (a, aurreikuspena) 2022ko martxoa

2022 hasieran arrisku berrien aurrean argi-ilunak daude, eta oraindik ez da aldatu euskal ekonomiaren norabidea. Hala, euskal ekonomiaren termometroak 131,2ko balioa lortu zuen martxoan eta hurrengo hilabeteetan aldatu daitekeen egonkortasun profila berretsi zen.

EAEn egiaztatu egin da 2021ean hasi zen hobekuntza

EAEko ekonomiaren termometroa: adierazle sintetikoa



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saila.


EAEko enpresen itzaropenek¹, 2022ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, hobekuntza nabarmena adierazi zuten (47,8 puntutik 58,0 puntura): nolabaiteko baikortasuna gailendu

¹ Informazio hori osagarria da, izan ere, inkestan parte hartu zuten 400 enpresek osatutako oinarriarekin egindako enpresa sentikortasuna biltzeko ekimena da (euskal enpresa sarearekiko garrantzia txikia da).

zen, bereziki fakturazio, eskaera eta prezioen martxari dagokionez (60 puntutik gora, egonkortasun eta hobekuntza itxaropenak gaituz); errentagarritasunari dagokionez eszeptikoagoak izan dira. Epe ertaineko bi adierazleek ere (enplegua eta inbertsioa) nabarmen egin zuten hobera (50,0 eta 47,5 izatetik 55,4 eta 54,5 izatera, hurrenez hurren). Hala ere, kontuan hartu behar da kontsulta otsailaren lehen hamabostaldian egin zela, eta beraz, ez ziren kontuan hartu Errusia eta Ukrainaren arteko gerraren inpaktua ezta inflazio tentsioak ere, beste batzuen artean.

Enpresa itxaropenek hobera egin zuten...baina gatazka belikoak kalte egingo die

EAEko enpresen aurreikuspenak



Iturria: Enpresa konfiantza. Laboral Kutxa

Euskal kontsumitzaileen konfiantza adierazlea positiboa izan zen 2021eko lau hiruhilekoetako hirutan eta 2022ko lehen hiruhilekoan indartu egin zen (7,7²), izan ere, herritarrek pandemiaren bukaera aurreikusten zuten eta ekonomia eta enplegua berreskuratu ziren. Hala ere, zain egon behar dugu aztertzeko nola eragingo dioten euskal etheen konfiantzari arrisku geopolitiko berriek, gerraren giza hondamendi handiak edo enegiaren eta elikagaien prezioaren igoerak.

Euskal familien konfiantza hobetu egin zen

EAEko etheen konfiantza

	2021			2022		
	2020	2021	I	II	III	IV
Etheen konfiantza (-100 eta +100 artean)	-22,0	-6,3	-31,6	1,7	4,6	0,0
						7,7

Iturria: Euskal kontsumitzaileen konfiantza. Laboral Kutxa

² Kotsulta otsailean egin zen.

Prezioak eta inflazioa

Testuinguru konplexu horretan nabarmentzekoa da prezioen igoeratik sortutako tentsioa. Joera hori 2021eko irailetik aurrera gertatu zen eta hiru arrazoi nagusirengatik jazo zen³. Lehenik eta behin kalkulatzeko prozesua dago, izan ere, 2021eko hileko prezioak 2020koak oinarri hartuta egiten dira eta une horretan ondasun eta zerbitzu asko moteltzen ari ziren nabarmenki⁴ eskariaren murrizketaren, mugikortasun mugen eta gizarte interakzioaren gutxitzeen ondorioz baldintzatuta, eta horrek bereziki eragin zien energia ondasunei⁵. eta zerbitzuei. Arrazoi horrengatik, normalizazioagatik prezioak etengabe haziko lirateke⁶.

Inflazioa faktore
kezagarria da

Bigarrenik, eskaria berriro aktibatzearen efektua dago, prezioen berreskuratzea aldatzearekin batera. Zehazki zerbitzu jarduerekin lotuta (adibidez turismoa, pandemian oso geldirik egon zirenak)⁷, baina tarteko produktuen segmentuetan⁸ "botila lepoen" ondorioz eta horniduretan baita ere, eta itsas pleiten hazkundearen inpaktua, beste faktore batzuen artean, produktuen azken prezioan ibilbide handiagoa edo txikiagoa dutenak. Hirugarrenik energia dago. Prezioen igoerak zati batean aipatutako bi argumentuei erantzungo lieke, baina, gainera, elektrizitatearen kasuan, gasaren prezioaren igoeraren ondoriozkoa da.

Faktore horiek azalduko lukete 2021eko udaberritik gertatzen ari zena, hau da, aldi baterako tentsio inflazionista zegoela, aipatutako hiru kausak arintzen zihoazen heinean. Hala ere (2022ko apirila) badirudi gehiago luzatu daitekeela Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerraren efektuen ondorioz (osagai desegonkortzailea da energia prezioen segmentuan) eta prezioen hazkundeak ondasun eta zerbitzuen geroz eta tarte handiagoan hedatzen ari direlako eta soldaten balio handitzeengatik (eta ondorengo prezioen igoerak), beste faktore batzuen artean.

Zehazki, EAEko KPI orokorraren urte arteko hazkundea % 9,5koa izan zen 2022ko martxoan, eta zifra hori estatukoaren (% 9,8) eta Bizkaikoaren⁹ (% 10,0) antzekoa da. Baina, prestatu gabeko elikagai produktuen eta energia produktuen prezioen hazkundearen efektua kenduz gero, prezioetan erregistratutako hazkundea gutxitu egiten da EAEn eta estatuan, % 3,6 eta % 3,4 hurrenez hurren. Erreferentzia biek argi uzten dute energiaren prezioak garrantzitsuak direla tentsio inflazionistan, baina prezioen berreskuratze "nahikoa orokorrera" ere bideratuta daude (azpiko inflazioa).

Espainiako apirilako KPI orokorraren aurrerapen datua % 8,4ra jaitsi zen elektrizitatearen eta erregaien prezioen jaitsierak baldintzatuta. Alderantziz, prestatu gabeko elikagairik eta energia produkturik gabeko KPI % 4,4ra igo zen eta egiaztatu egin zen hedapena prezioen igoeraren ondasun eta zerbitzu gehiagotan gertatu zela.

³ "Inflazioa: politika monetarioaren bilakaera berria, itxaropenak eta inplikazioak". Finantza Sektorearen XXII. Topaketa, Hedapena-KPMG. Espainiako Bankuaren hitzaldia (Pablo Hernández de Cos).

⁴ KPI Orokorraren urte arteko aldakuntza-tasa negatiboa izan zen Espainian eta EAEn 2020ko apiriletik urrira bitartean.

⁵ Nabarmenki elektrikoak ez diren energia produktuen kasuan (petrolio eta eratorriak).

⁶ Espainian erregistratutako hazkundearen % 30 inguru efektu horri lotuta egongo litzateke.

⁷ Eskariaren berreskuratzeak eskaintzaren gaitasuna gainditzen zuen.

⁸ Itsas garraioak munduko salgaien % 80 inguru mugitzen du. Sektorea bereziki tenkatuta zegoen aldi berean mundu mailan berraktibazioa gertatzen ari zelako eta bereziki kritikoak ziren istripuak baita ere, besteak beste Suezko Kanaleko istripua zela-eta (2021eko martxoan) jarduera gelditu eta atzeratzea.

⁹ Azpiko inflazioaren osagaia ez dago erabilgarri Bizkaiaarentzat.

KPI Espainian, EAEn eta Bizkaian

Urtetik urterako aldakuntza tasa, %

	KPI orokorra			KPI (prestatu gabeko elikagairik eta energia produkturik gabe)	
	Espainia	EAE	Bizkaia	EAE	Espainia
2021M03	1,3	1,4	1,4	0,5	0,3
2021M04	2,2	2,5	2,5	0,4	0,0
2021M05	2,7	2,8	2,8	0,5	0,2
2021M06	2,7	2,9	2,9	0,6	0,2
2021M07	2,9	2,9	2,9	0,9	0,6
2021M08	3,3	3,3	3,2	1,0	0,7
2021M09	4,0	3,9	3,8	1,2	1,0
2021M10	5,4	5,0	4,9	1,4	1,4
2021M11	5,5	5,1	5,1	1,7	1,7
2021M12	6,5	6,4	6,3	2,2	2,1
2022M01	6,1	6,0	6,0	2,6	2,4
2022M02	7,6	7,4	7,5	3,1	3,0
2022M03	9,8	9,5	10,0	3,6	3,4

Iturria: EIN

Ibilbide hori inguruko ekonomietan antzekoa izan da, EB-27ren inflazioa % 7,8 gehitu zen eta orokorra eta azpikoa % 3,9 (martxoan). Herrialdez herrialdeko emaitzak erakusten du energia prezioen osagaia garrantzitsua dela, baina, prezioen kontrol gaitasuna baita ere, eta hori erabakigarria izango da lehia kokapenean.

Egoera hori inguruko ekonomietan ere gertatzen da, baina, inpaktu mailak ezberdinak dira

KPI bateratua EB-27n eta Europako ekonomien batzordea 2022ko martxoa

Urtetik urterako aldakuntza tasa, %

	Inflazioa ¹	Azpiko inflazioa ²
Eurogunea	7,4	3,1
Alemania	7,6	3,5
Danimarka	6,0	3,4
Espainia	9,8	3,6
Frantzia	5,1	2,4
Holanda	11,7	3,4
Italia	6,8	2,1
Suedia	6,3	3,6
EB-27	7,8	3,9


1. HICP - KPI orokor bateratua; 2. HICO- KPI prestatu gabeko elikagairik eta energia produkturik gabe
Iturria: Eurostat

EAEko BPGd

2021eko laugarren hiruhilekoko datuek EAEko Barne Produktu Gordinak erregistratutako berreskurapena (+% 1,3) berretsi dute, gorantz egin duten sei hiruhileko lotuz. Hala, EAEko BPGd % 5,6 hazi zen 2021ean; zifra positiboa da, baina urte hasieran aurkeztutako aurreikuspenekin erkatuz gero baxuagoa da. Egia da hirugarren eta laugarren hiruhilekoak ez direla espero bezain dinamikoak izan, bat etorri direlako pandemiaren egoeraren jarraitutasunarekin eta ezarritako mugekin. Bestalde, 2022ko lehen hiruhilekoko aurrerapen datuek diote euskal ekonomiako BPGd eta enplegua +% 5,7 eta +% 5,0 haziko direla urte artean.

2021ean EAEko BPGd
% 5,6 hazi da

EAEko BPGd



(a): aurrerapena

Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta hiruhileko kontuak), 2015eko oinarria

EAEko BPGd sektoreen arabera

	2019	2020	2021	Urtetik urterako aldakuntza tasa, %			
				I	II	III	IV
BPGd	2,2	-9,9	5,6	-2,9	18,6	3,9	4,7
Lehen sektorea	5,9	-15,0	2,0	-7,1	7,8	4,6	2,6
Industria eta energia	1,4	-11,3	9,7	-1,1	30,2	5,5	4,3
Eraikuntza	2,4	-8,2	2,7	-2,4	11,5	1,3	0,5
Zerbitzuak	2,6	-9,0	5,4	-3,5	15,5	4,0	5,4

Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta hiruhileko kontuak), 2015eko oinarria

2021eko itxierako datuek sektore berreskurapena baieztatu zuten lau sektore handien jokabide positiboarekin; industriak tiraldi gogorra izan du (+% 9,7), zerbitzuen berreskurapena garrantzitsua izan da (+% 5,4) eta, neurri txikiagoan, baita eraikuntzaren jarduera (+% 2,7) ere. Hori bai, termino izendunetan, ez BPGd-k, ez sektoreko BEGk ez dute 2019ko maila berreskuratu; une honetan 2022. urtean lortzea ere arriskuan dago.

2021: industriaren (+% 9,7) eta zerbitzuen (+% 5,4) "tiraldi" garrantzitsua

EAE enpleguaren bilakaerak aurrera jarraitzen du berreskuratze erritmoan, eta 948.561 lanposturekin itxi da 2021. urtea (DOB); urte arteko igoera % 5,5ekoa izan da. Berriz ere, erregistratutako hobekuntza handia da, 2020. urtea oso txarra izan eta gero; hala ere, oraindik (nahiko) urrun dago 2019ko laugarren hiruhilekoan erregistratutako datutik (978.335 lanpostu); orduan, enpleguak 2008ko krisitik daturik onena lortu zuen.

Lanpostuek % 5,5 egin dute gora

Azkenik, nabarmendu behar da zerbitzuen sektoreak oso jokabide positiboa izan duela (+% 6,1); hala, enplegu terminoetan gehiago hazi da BEG terminoetan baino; egoera hori industria eta energiako egoeren aurkakoa da, enpleguak (+% 3,7) egin baitu gora; BEG terminoetan kontsignatutakoaren ia heren bat da (+% 9,7).

LAN MERKATUA


Biztanleria afiliatua

2022ko martxoan Gizarte Segurantzaren 182.949 afiliatu zituen Bilbok; horrek esan nahi du hiruhileko arteko igoera % 1,8koa izan dela, eta 2021eko laugarren hiruhilekoan baino 3.173 afiliatu gehiago egon direla. Emaita horiek baieztatzen dute hiribilduko enplegua pixkanaka berreskuratzen dagoela 2020ko irailetik aurrera, sei hilabetez jarraian (2020ko martxorik abuztura) afiliazioak atzera egin eta gero.

Bilbon pandemiaren aurreko afiliazio balioak lortu dira

Azken afiliazio datuek hobetu egiten dituzte pandemia aurretik erregistratutakoak (2020ko otsailean 182.087 kotizatzaile) eta agerian utzi zuten hiribilduan enplegua sortzen ari zela nahiz eta gerrak edo garraio sektorearen grebak (martxoaren 14an hasi zena) zalantzaragarrtasuna sortu. Hala, afiliazioa % 3,2 hazi zen urte arteko terminoetan (5.645 afiliatu gehiago) eta horrekin egiaztatzen da Bilbo pandemiaren aurreko egoeran dagoela berriz ere.

Biztanleria afiliatua



Iturria: Gizarteratzeko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioa

Afiliazioaren bilakaera berriaren analisi xeheak adierazten du hala ere asimetriak daudela berreskuratze mailetan araubideen arabera. Hala, araubide orokorreko afiliazioa % 2,0 hazi zen hiruhileko arteko tasan eta Etxeko langileen araubide orokorra % 1,3 gehitu zen, eta Itsas eta nekazaritza sektoreko araubide berezien hazkundea are handiagoa zen (+% 9,3). Gehikuntza horiekin konpentsatu egiten da Langile autonomoen araubide bereziko afiliazioa (-% 0,1).

Enplegua "abiadura desberdinetan" berreskuratu da araubideen arabera

Analisi berbera egiten bada denbora gehiago kontuan hartuta (urte arteko aldakuntza) afiliazioa gehitu egin zen araubide orokorrean (+% 3,8) eta Etxeko langileen araubide berezian (+% 1,4). Itsaso eta Nekazaritza Sektoreko araubide berezietan ia ez zen gehitu (+% 0,4) eta autonomoen araubide berezian gutxitu egin zen (-% 0,5). Halaber, araubide orokorra da hiribilduko afiliaziorik gehien duen multzoa (% 83,8), eta kopuru horietatik urrun daude autonomoen araubide berezia (% 12,3) eta beste bi araubideak. Hobekuntza horrekin,

araubide orokorrean afiliatutakoak (+% 1,6, 2019ko martxokoekin alderatuz) eta Itsaso eta Nekazaritzako araubide berezietakoak (+% 0,9) pandemiaren aurreko mailetan kokatzen dira.

Afiliatuak, araubideen arabera

	2022.03	Δ % hiruhileko artekoa (21eko abendua)	Δ % urte artekoa (21eko martxoa)	Δ % covid aurrekoa (19ko martxoa)
GUZTIRA	182.949	1,8	3,2	1,2
Araubide Orokorra	153.382	2,0	3,8	1,6
Autonomoak	22.499	-0,1	-0,5	-0,6
Etxeko langileak	6.376	1,3	1,4	-2,2
Beste batzuk	692	9,3	0,4	0,9

Iturria: Gizarteratzeko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioa

Hala ere, afiliazioaren berreskuratzea ez zen sektore guztietan gertatu. Zerbitzuen eta eraikuntzaren sektoreak dira afiliazioaren jokaera onaren erantzuleak, izan ere, industrian, energian eta lehen sektorean enplegua gutxitu egin zen. Zehazki, zerbitzuen sektoreari lotutako enplegua % 2 gehitu zen 2021 urte bukaerako datuekin alderatuta, eta guztira 165.276 afiliatu zeuden (3.254 gehiago) eta eraikuntzaren sektoreak lehen hiruhileko bukaeran 9.005 afiliatu zituen (+% 1,9; +169). Alderantziz, industria jardueraren afiliazioa (-% 2,8) eta lehenengo sektorekoa (-% 3,0) gutxitu egin ziren.

Zerbitzuen eta eraikuntza sektoreen afiliazioa gehitu egin da

Zehazki, zerbitzuen sektorean afiliazioa gehitu egin zen 16 jarduera adarretako 12tan, eta horietan nabarmentzekoak dira urteko lehen hiruhilekoan erregistratzeke dauden administrazio eta laguntza zerbitzuak eta enpleguaren sustapena handitu zen (+% 10,2, 1.717 afiliatu). Ondoren hezkuntza (+% 4,1), zerbitzu profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (+% 3,5), informazioa eta komunikazioak (+% 3,0), aisialdi eta kulturakoak (+% 4,2) edo higiezinak (+% 4,2) daude, beste batzuen artean. Alderantziz, afiliatu gutxiago daude merkataritzan (-% 3,0), osasunean (-% 1,6) eta gizarte zerbitzuetan (-% 1,5) eta garraio eta biltegiatzeko afiliazioa gelditu egin zen (% 0,0).

Afiliazioaren bilakaerak joera bera du urte artean, eta enplegua gehitu zen zerbitzuen sektorean (+% 3,5) eta eraikuntzan (+% 1,0), eta industria sektorean (-% 0,6) eta lehenengoan (-% 7,3) gutxitu egin ziren.

Zerbitzu sektorearen urte arteko jardueran hazkundeak izan dira afiliazioan ia-ia osatzen duten jarduera adar guztietan, finantza eta aseguruetan (-% 2,9) eta garraioa eta biltegiatzean (-% 0,7) salbu; lehenengoan egiturazko doikuntza izan zen nagusi (oraindik egiten ari direna 2008ko krisiaz geroztik) eta bigarrena, ziurrenik koiunturala da (grebak eta bestelako desdoikuntzak jardueran).

Alderantziz, aisialdia eta kultura zerbitzuei (+% 12,3) eta ostatuei (+% 11,1) lotutako zerbitzuek urte arteko aldakuntza hobeak izan dituzte, baina, gehienbat pandemia egoeran bi urte igaro ondoren "normaltasunera itzultzea" izango da.

Afiliatuak, jarduera adarraren arabera

	2022.03	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Lehen sektorea	328	-3,0	-7,3
Industria eta energia	8.346	-2,8	-0,6
Industria	4.860	-1,6	0,5
Energia	1.014	-1,5	-0,9
Hondakinak eta ura	2.473	-5,6	-2,5
Eraikuntza	9.005	1,9	1,0
Eraikuntza	2.950	5,0	2,5
Eraikuntzako laguntzaileak	6.055	0,5	0,3
Zerbitzuak	165.276	2,0	3,5
Merkataritza	19.157	-3,0	0,9
Administraziokoak eta lagungarriak	18.515	10,2	6,2
Hezkuntza	23.817	4,1	6,2
Profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	14.186	3,5	5,8
Administrazio publikoa	11.877	1,4	1,3
Osasuna	13.938	-1,6	1,8
Gizarte zerbitzuak	9.251	-1,5	3,7
Finantza eta aseguruak	6.997	0,1	-2,9
Garraioa eta biltegiatzea	8.751	0,0	-0,7
Ostalaritza	9.506	1,8	4,7
Informazioa eta komunikazioak	9.171	3,0	3,0
Etxeko langileak	6.854	1,0	1,0
Aisialdia eta kulturakoak	4.027	4,2	12,3
Ostatua	1.493	1,6	11,1
Higiezinak	1.253	4,2	6,4
Beste zerbitzu batzuk	6.483	2,4	5,8

Oharra: Bederatzi jardueretan, eta estatistika sekretuaren babes gisa, Gizarte Segurantzak ez du datu hori ematen; 5 pertsonatik beherakoa dela adierazten du. Klase markaren batez besteko balioarekin zuzendu egin da zenbaki datu bat emateko; hala, guztirako datua ez dator bat partiden baturarekin, garrantzitsua izango ez litzatekeen 6 afiliazioko desbiderapenarekin.

Iturria: Gizarteratzeko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioa

Bukatzeko, hiribilduaren erreferentziatzat hartzen diren estatuko hiriburu guztiek berreskuratze profil berbera dute afiliatutako pertsona kopuruan, eta afiliazioan goranzko aldakuntza dute bai hiruhileko arteko terminoetan bai urte artekoetan. Hala, estatuko hiriburuaren multzoak (G5 batez bestekoa) urte arteko aurrerakuntza handiagoa izan du (+% 5,7) EAEko hiriburuak baino (+% 4,1), eta hiruhileko artean kontrakoa izan da (+% 1,9 eta +% 2,4 hurrenez hurren).

Erreferentziatzeko
hiriburu guztiek
afiliazioaren
hobekuntza
partekatzen dute

Halaber, aztertutako hiri guztietan afiliatuen bolumena hazi egin da hiruhileko artean, eta kopuruak hauen artekoak dira: Sevillan % 1,1 eta Iruñean % 3,1. Urte arteko terminoetan Valentziak izan ditu kopuru hoberenak (+% 7,4) eta Bilboren erritmoa motelagoa da (+% 3,2).

Benchmarkinga. Biztanleria afiliatua

	2022.03	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Madril	2.110.354	1,8	6,0
Bartzelona	1.149.432	2,7	5,2
Valentzia	410.096	2,2	7,4
Sevilla	377.841	1,1	5,7
Zaragoza	297.974	2,0	4,3
G-5eko batez bestekoa	--	1,9	5,7
BILBO	182.949	1,8	3,2
Gasteiz	124.551	2,1	4,5
Donostia	119.491	1,9	3,5
Iruñea	110.358	3,1	4,2
G-3ko batez bestekoa	--	2,4	4,1
G-9ko batez bestekoa	--	2,1	4,9

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: Gizarteratzeko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioa

Kontratuak

Kontratazioari lotutako azken datuen arabera jokaerek zeinu ezberdinak izan dituzte urte arteko edo hiruhileko arteko terminoetan aztertzen direnaren arabera. 2022ko lehen hiruhilekoan 31.248 kontratu berri formalizatu ziren Bilbon, eta horrek esan nahi du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta % 19,5eko atzerapena gertatu zela (7.566 kontratu gutxiago), baina 2021eko martxoko erregistroekin alderatuta % 19,8 gehiago (5.158 kontratu gehiago). Hala ere, kontratazio maila covidaren aurreko mailen azpitik dago oraindik ere (-% 7,2 eta 2.431 kontratu gutxiago).

Hiruhileko arteko jaitsiera
(-% 19,5) baina urte
arteko igoera (+% 19,8)

Kontratazio bolumeneko jaitsiera (hiruhileko arteko aldakuntza) emakumeen eta gizonen artean gertatu zen (-% 19,2 eta -% 19,8 hurrenez hurren). Hala ere, urte arteko balantzean emakumeen hazkundea handiagoa izan da (+% 25,7 eta +% 14,3) hirugarren sektoreko jardueretan emakume gehiagok lan egiten dutelako (txikizkako merkataritza, ostalaritza, gizarte zerbitzuak, eta abar). Alderantziz, covidaren aurreko garaiarekin alderatuta emakumeen arteko bazarako aldakuntza zerbait txikiagoa da (-% 11,8 eta -% 15,7 hurrenez hurren).

Adin taldeen arabera, urte arteko terminoetan profil dinamikoena segmentu gazteenari dagokio (16-24 urte; +% 51,8), eta ondoren 25-34 urte artekoen taldea dago (+% 16,6) eta azkenik 45 urte eta gehiagokoena (+% 13,7) eta 35-44 urte artekoena (+% 12,1). Hala ere, adin talde guztietan kontratazioak balio txikiagoak ditu 2020an erregistratutakoekin alderatuta.

Halaber, kontratazio mugagabeen modalitatean sustapen handia gertatu da¹⁰ eta behin-behinekoa baino askoz ere dinamikoagoa izan da bai hiruhileko arteko terminoetan (+% 46,3 eta -% 27,8), bai urte arteko terminoetan (+% 94,5 eta +% 9,0). Hala, nahiz eta behin-behineko kontratazioek hiribilduko egoiliarrekin formalizatzen diren kontratu berrien multzo handiena osatu (% 79,6), modalitate mugagabeak geroz eta pisu handiagoa du, eta gaur egun Bilbon erregistratzen diren 5 kontratu berrietatik 1 mugagabea da, eta eragin nabarmena du hiriko enplegu oinarria finkatzean. 2022ko lehen hiruhilekoko kontratu mugagabeen kopuruak nabarmenki gaitzitzen ditu covidaren aurreko etapan erregistratutakoak (+% 90,3), eta behin-behineko modalitatean alderantziz gertatu da (-% 18,0).

Dinamismo garrantzitsua du kontratazio mugagabeak, COVID aurreko mailak gaitzitzen

Bolumenean nabarmentzekoa da zerbitzu sektorearen ekarpena, formalizatutako hamar kontratutik zortzi baino gehiago horrelakoak izan baitziren (% 84,8). Bilakaera negatiboa izan zuen hiruhileko arteko terminoetan (-% 21,5) eta positiboa urte arteko terminoetan (+% 23,1). Gauza bera gertatu da industria eta energia kontratazioetan, baina, kopuruak txikiagoak dira (+% 1,2 eta -% 1,8). Eraikuntzari eta lehen sektoreari dagokienez, bi errealitate oso ezberdin daude. Lehenengoan, kontratazioaren bilakaera aldekoa da (+% 5,5 eta +% 11,5) eta bigarrenetan tasa negatiboak dira nagusi (-% 36,7 eta -% 0,4). Hala, bakar-bakarrik eraikuntzaren sektoreak eta lehen mailakoak dituzte covidaren aurreko etapako kontratazio maila oso antzekoak (-% 4,7 eta -% 3,5), eta industriari eta energiari eta zerbitzu sektoreak berreskuratzeko tarte handiagoa dute (-% 14,6 eta -% 14,4).

Hamar kontratutik ia bederatzi (% 84,8) zerbitzuen sektorekoak dira

Kontratuak

	2022.I	Δ % hiruhileko artekoa (2021 IV.hiruhi)	Δ % urte artekoa (2021 I.hiruhi)	Δ % Covid aurrekoa (2019 I.hiruhi.)
GUZTIRA	31.248	-19,5	19,8	-13,8
Emakumeak	15.653	-19,2	25,7	-11,8
Gizonak	15.595	-19,8	14,3	-15,7
16-24 urte bitartekoak	5.836	-29,1	51,8	-11,7
25-34 urte bitartekoak	9.094	-17,8	16,6	-14,0
35-44 urte bitartekoak	7.378	-14,7	12,1	-21,7
45 urte eta gehiagokoak	8.940	-17,8	13,7	-7,2
Mugagabeak	6.371	46,3	94,5	81,7
Aldi baterako	24.877	-27,8	9,0	-24,0
Lehen sektorea	554	-36,7	-0,4	-3,5
Industria eta energia	2.706	-1,8	1,2	-14,6
Eraikuntza	1.491	5,5	11,5	-4,7
Zerbitzuak	26.497	-21,5	23,1	-14,4

Bilbon bizi den populazioak erregistratutako kontratazio berriak.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa, SEPE


¹⁰ Lan erreforma indarrean sartzeak ([abenduaren 28ko 32/2021 ELD](#)) kontratazio mugagabea bultzatu du, batez ere 2022ko lehen hilabeteetan (urtarrila-otsaila-martxoa), hiribilduan erregistratutako kontratu berrien % 20,3 inguru hartuz; aurreko aldietan, berriz, ekarpena % 10 baino txikiagoa izan zen.

Erregistratutako langabezia¹¹

2022ko martxoan Bilbon 22.739 pertsona zeuden erregistratuta enplegu eskatzaile gisa. Horrek esan nahi du hiruhileko arteko igoera % 2,7koa izan zela (608 langabe gehiago) eta urte arteko terminoetan jaitsiera gertatu zen % 9,8 (2.459 langabe gutxiago), eta erregistro horiek 2020ko otsailekoen oso antzekoak izan ziren (-% 0,2 eta 36 langabe gutxiago). Horrenbestez, Bilbo pixkanaka pandemiaren aurreko langabezia mailetara itzuli da 2020ko abuztuan lortutako balio maximoaren ondoren (27.850 pertsona langabetu), ondoz ondoko hilabete hauetan zehar zuzendu dena.

Erregistratutako langabeziak pandemia aurreko balioen oso antzekoak ditu

Erregistratutako langabezia tasa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa, SEPE

Langabeziaren hiruhileko arteko gehikuntza nabariagoa da emakumeen artean (+% 4,4 eta gizonak +% 0,8), eta urte arteko terminoetan gizonen jaitsiera handiagoa da (-% 11,3) emakumeenarekin alderatuta (-% 8,5). Gainera, eta pandemia aurreko langabezia egoerarekin konparatuz, kolektibo bien bilakaera parekidea izan da (-% 1,1). Hiribilduan langabezia dauden pertsonen erdia baino gehiago emakumeak dira (% 55,4).

Urte arteko jaitsiera partekatua emakume eta gizonen artean...

Halaber, erregistratutako langabeziaren gehikuntza (hiruhileko arteko aldakuntza) adin talde guztietan gertatu zen, baina, gazteenen artean (16-24 urte bitartean) izan ziren kopuru nabarmenenak (+% 11,8 hiruhileko artekoa); beste taldeen kopuruak +% 0,9 eta +% 2,7 artekoak izan ziren.

...eta adin talde guztietan gertatzen da

Urte arteko terminoetan, langabeziako jaitsiera handienak tarteko adin taldeetan gertatu ziren eta bi digituko jaitsierak izan zituzten (-% 15,3 eta -% 18,1, 35-44 urte artekoak eta 25-34 urte artekoak), eta adinez nagusienak direnak izan dira gutxiago jaitsi direnak (-% 5,0 45 urte eta gehiagokoak). Covidaren aurreko garaiari dagokionez, berriz ere tarteko adina duten taldeak izan dira 2020koekin alderatuz langabezia maila txikiagoak izan dituztenak (-% 7,5 eta -% 11,9, 25-34 urte eta 35-44 urte), eta gazteenek igoera handia izan zuten (+% 26,5, 16-24 urte).

¹¹Ez dira jaso Aldi Baterako Enplegu Erregulazioako Espedienteak (ABEEE) dituzten herritar langabeak.

Langabezian daramaten denboraren arabera aztertuta, denbora gutxien daramatenak dira hiruhileko arteko kopuru txarrenak izan dituztenak (+% 7,0 eta +% 10,8 6 hilabetera arte eta 6 hilabetetik urtebetera). Alderantziz, urtebete eta bi urte artean langabezian daramaten taldeek jokaera hobea izan dute (-% 8,2) eta 3 urte baino gehiago daramatzatenek baita ere, baina, kopuru txikiagoan (-% 1,2).

Bestalde, langabeziako bilakaera partekatua da prestazioren bat kobratzen duten talde guztietan (+% 2,5 eta -% 9,0 hiruhileko eta urte artean) eta jasotzen ez dutenen artean (+% 3,4 eta -% 11,6), Bilbon langabezian dagoen populazioaren % 71,3 hartuz.

Erregistratutako langabezia tasa

	2022.03	Δ % hiruhileko artekoa (2021eko abendua)	Δ % urte artekoa (2021eko martxoa)	Δ % Covid aurrekoa (2019ko martxoa)
GUZTIRA	22.739	2,7	-9,8	-1,1
Emakumeak	12.588	4,4	-8,5	-1,1
Gizonak	10.151	0,8	-11,3	-1,1
16-24 urte bitartekoak	1.882	11,8	-6,6	26,5
25-34 urte bitartekoak	3.652	2,7	-18,1	-7,5
35-44 urte bitartekoak	4.750	0,9	-15,3	-11,9
45 urte eta gehiagokoak	12.455	2,2	-5,0	2,4
6 hilabetera arte	7.528	7,0	-3,3	7,0
6 hilabete eta urte 1 bitartekoak	2.849	10,8	3,1	-7,4
1 eta 2 urte bitartean	2.807	-8,2	-43,3	-11,8
2 eta 3 urte bitartean	2.404	7,8	6,7	18,4
3 urte baino gehiago	7.151	-1,2	-3,9	-6,6
Ez du langabezia prestaziorik kobratzen	16.223	2,5	-9,0	-4,1
Langabezia prestazioak kobratzen ditu	6.516	3,4	-11,6	7,4

Iturria: Lanbide eta Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa, SEPE

Bestalde, erregistratutako langabeziaren jaitiera urte arteko terminoetan neurtzen da eta estatuko eta EAEko hiriburu guztietan gertatu da. Alderantziz, aurreko hiruhilekoarekin konparatuz, bakarrik Madril eta Valentzian gutxitu dira langabeen kopuruak (-% 8,2 eta -% 4,7 hurrenez hurren).

Erreferentziazko
hiriburu guztietan
erregistratutako
langabezia gutxitu egin
da (urte arteko
aldakuntza)

Benchmarkinga. Erregistratutako langabezia tasa

	2022.03	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Madril	159.411	-8,2	-25,7
Bartzelona	64.060	1,1	-33,5
Valentzia	51.855	-4,7	-22,3
Sevilla	67.773	2,7	-19,3
Zaragoza	35.752	2,0	-26,2
G-5eko batez bestekoa		-1,4	-25,4
BILBO	22.739	2,7	-9,8
Gasteiz	15.459	3,1	-9,6
Donostia	7.674	4,2	-12,3
Iruñea	11.422	7,2	-19,4
G-3ko batez bestekoa		4,8	-13,8
G-9ko batez bestekoa		1,1	-19,8


G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: Lanbide eta Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa, SEPE

Biztanleria Aktiboaren Inkesta

2022ko lehen hiruhilekoan hiribilduko biztanle aktiboak 173,7 mila ziren, 2021eko laugarren hiruhilekoan baino zertxobait gutxiago. Hala ere, erregistro horrek pandemiaren aurreko maila gaingitzen du (167,5 mila pertsona; 2019ko batez bestekoa).

Landunak eta langabeak gutxitu egin dira

Biztanleria aktiboa, landuna eta langabetua



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (INE) Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI)

Landunak 157,6 mila pertsonatan finkatu ziren eta bilakaera ezberdina izan zen generoaren arabera: emakume landunak gehiago dira (+% 1,4) eta gizonak gutxiago (-% 2,3). Horren arrazoia izan daiteke industria sektorearen jarduera positiboa izan dela landunak gehiago izan direlako (+% 1,6), eta zerbitzu sektore mantendu egin da (+% 0,0) eta eraikuntzakoak atzera egin du (-% 8,7). Guztira, enplegu tasa hobetu egin da (% 54,6), baina, emakumeentzako txarragoa den emaitza mantendu da (% 49,8 eta % 60,3).

Langabeak % 10,6 gutxitu dira eta 16,1 mila pertsona dira. Hala, hiribilduko langabezia tasa % 9,3koa da eta emakumeen kopuruak hobeak dira (% 8,2; -2,7 ehuneko puntu hiruhileko artean) gizonenak baino (% 10,3; +8,7 ehuneko puntu hiruhileko artean).

Aktiboak, landunak eta adierazleak (enplegu eta langabezia tasak)

	2021.II	2021.III	2021.IV	2022.I	Δ %	
					Hiruhileko artean	Urte artekoa
Biztanleria aktiboa (milakotan)	172,7	168,6	176,3	173,7	-1,5	9,9
Biztanleria landuna (milakotan)	149,6	151,3	158,3	157,6	-0,4	13,3
Industria	22,2	20,6	18,2	18,5	1,6	-17,8
Eraikuntza	9,3	10,5	10,4	9,5	-8,7	-9,5
Zerbitzuak	118,1	120,2	129,2	129,2	0,0	21,8
Langabeak (milakotan)	23,1	17,3	18,0	16,1	-10,6	-14,8
Enplegu tasa (%)	50,67	51,5	53,9	54,6	0,7p.p.	7,7p.p.
Emakumeak	44,7	45,8	49,2	49,8	0,6p.p.	9,3p.p.
Gizonak	57,6	58,1	59,2	60,3	1,1p.p.	5,9p.p.
Langabezia-tasa (%)	13,4	10,3	10,2	9,3	-0,9p.p.	-2,7p.p.
Emakumeak	15,2	9,9	10,9	8,2	-2,7p.p.	-4,5p.p.
Gizonak	11,7	10,6	9,5	10,3	0,8p.p.	-1,1p.p.

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (INE) Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI)

Hiruhileko arteko bilakaerari dagokionez, jokaera ezberdinak daude generoaren arabera, eta emakumeen kopuruak hobeak dira. Biztanleria aktiboa mantendu egin da –goranzko jokaera txikiarekin– emakumeen artean (+% 0,1) eta gizonen artean jaitsi egin da (-% 2,9). Horren arrazoia da emakume landunak gehitu egin direla (+% 1,4) eta gizon landunak gutxitu (-% 2,3), eta horrez gain, langabeak gutxitu egin dira talde bietan (-% 13,8 eta -% 8,0).

Emakumeen eta gizonen kopuruak ezberdinak dira

Azkenik, enplegu tasaren bilakaerak hazten jarraitzen du eta % 54,6ko kopurua du, izan ere, gizonen enplegu tasa hobetu egin da (+1,1 ehuneko puntu) eta emakumeena baita ere (+0,6 ehuneko puntu).

MERKATARITZA

Bizkaiko merkataritzaren sektoreko salmentek hazkunde handia izan dute 2021ean, eta ondoz ondoko lau hiruhileko egin dituzte hazten, lurraldean jarduera berraktibatzen ari dela baieztatuz. Laugarren hiruhilekoko emaitzek sektoreko salmenten bilakaera positiboa finkatu dute (+% 9,9), handizkako (+% 16,4) eta txikizkako (+% 6,0) segmentuek lagunduta eta ibilgailuen salmenta eta konponketaren atzerakada orekatuz (-% 9,7).

Laugarren hiruhilekoan Bizkaiko merkataritza sektoreko salmentek % 9,9 egin dute gora (urte artekoa)

Txikizkako merkataritzaren segmentuaren aurrerapena elikadurakoa ez den taldearen bilakaera positiboari dagokio (+% 12,6), elikaduraren azpisektoreak izan duen dinamismo galaren aurrean (-% 1,0), 2020an indarrez hazi baitzen pandemiak eragindako egoeran, baina pixkanaka jarduera maila normalizatuago batera itzultzen ari da.

Sektoreari lotutako enpleguari kutsatu egin zaio jardueraren dinamizazioa eta bigarren hiruhilekoz jarraian gora egin du, 2020an suntsitutako enpleguaren zati bat berreskuratuz. Laugarren hiruhilekoko emaitzek berretsi egin dute sektore enpleguaren berreskurapen joera (+% 3,1); hala ere, 2022an finkatzeko zain dago.

Bilakaera positiboa sektore enplegura iritsi da (+% 3,1)

Merkataritza

	Urtetik urterako aldakuntza tasa, %				
	2020.IV	2021.I	2021.II	2021.III	2021.IV
Salmentak	-7,2	1,3	27,2	8,7	9,9
Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa	-1,0	6,9	41,7	-14,3	-9,7
Handizkako merkataritza	-12,0	2,4	33,9	20,8	16,4
Txikizkako merkataritza*	-1,1	-0,8	15,2	-0,5	6,0
Elikagaiak	6,9	0,0	-4,2	-0,1	-1,0
Gainerako produktuak	-7,7	-1,5	39,9	-0,8	12,6
Landunak	-3,4	-3,5	0,2	3,0	3,1

*Zerbitzugunerik gabeko indize orokorra.

Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta duten uneko prezioak. Oinarria: 2015.

Iturria: Estatistikako Euskal Institutua, Eustat

Urteko lehen hiruhilekoan Bizkaiko merkataritza gune handien salmentek hazkunde erritmoa mantendu dute (+% 4,8) eta pandemian hobetu diren jarduera gutxienetakoen artean dago. Hala ere, adierazlea osatzen duten segmentuetan bi errealitate ezberdin gertatzen dira.

Elikagaien segmentua laugarren hiruhilekoz jarraian jaitsi da osasun krisiaren aldirik larrienean erregistratu zuen igoera eta gero eta % 1,0ko galera izan du, eta kopuru hori partzialki konpentsatzen du elikagaietakoa ez den segmentuaren sustapen handiarekin (+% 16,9); azken horrek 2021eko lehen hiruhilekoan hasitako gorako joerarekin jarraitzen du.

Saltoki handietako salmentek hazten jarraitzen dute

Halaber, merkataritza azalera handien sektoreari atxikitako enpleguak gorantz jarraitzen du (+% 7,1) eta atzean utzi ditu pandemiaren aurreko kontrako ondorioak (sektore enpleguak 2019ko hirugarren hiruhilekotik zuen narriadurari gehitu zitzaizkionak).


Saltoki handietako salmentak

Urtetik urterako aldakuntza tasa, %

	2021.I	2021.II	2021.III	2021.IV	2022.I
Salmentak	5,2	6,8	0,4	2,4	4,8
Elikagaiak	4,1	-8,1	-1,1	-2,1	-1,0
Beste produktu batzuk	7,7	52,2	2,9	11,3	16,9
Landunak	-0,6	5,8	9,4	6,7	7,0

Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta duten prezio arruntak. Hiruhilekoko datua, hileko hiru datuen batez bestekoa.
Iturria: Estatistikako Euskal Institutua, Eustat

Saltoki handietako salmenta indizea, hileko bilakaera



Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta duten prezio arruntak. Oinarria: 2015.
Iturria: Estatistikako Euskal Institutua, Eustat

Aurretik aipatu moduan, ibilgailuen salmenta eta konponketa segmentua beherantz jarraitzen duen bakarra da. Gauza bera gertatzen da sektoreko beste adierazle nagusi batean ere, Bizkaiko ibilgailu berrien salmentan, zeinak % 22,7 egin duen atzera (hiruhileko arteko aldakuntza) eta urteko lehen hiruhilekoaren bukaeran 2.363 ibilgailu matrikulatu berri zituenak.

Ibilgailuen matrikulazioak ez du hobera egin

Murrizketa handi horrek argi uzten du bezeroen bi segmentuetan atzerakuntzak gertatu direla, eta jaitsiera handiagoa izan da partikularren segmentuari dagozkion salmentetan (-% 28,2) enpresen segmentuaren kontrastatuta (-% 9,7). Era berean, 2021eko lehen hiruhilekoko emaitzekin alderatuta nabarmenki txikienetakoak diren emaitzen artean dago, eta agerian uzten du sektoreak krisian jarraitzen duela, izan ere, orain dela urte batzuetatik hainbat arazo ditu.

Azken zailtasunek (erdieroaleen krisia, ibilgailu eramaleen eta garraio sektorearen greba, energiaren prezioen igoera, eta abar) ekoizpen erritmoa gelditu zuten eta kontzesionarioetan saltzeko ibilgailu eskuragarrien flota gutxitu zuten. Horretaz gain, matrikulazio zerga berria

indarrean jarri da eta WLTP isuriaren protokoloaren arabera kalkulatu da. Gainera, erosleentzat zaila da erabakitzea zein den motorizazio motarik onena eta horregatik ibilgailu bat erosteko erabakia atzeratzen dute eta ondorioz, automobilgintza sektorearen berrakibazioa atzeratzen da baita ere.

Ibilgailuen matrikulazioa

	2020.I	2021.I	2022.I	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artean
Guztira	3.216	2.794	2.363	-22,7	-15,4
Partikularrak	2.060	1.617	1.546	-28,2	-4,4
Enpresakoak eta beste batzuk	1.156	1.177	817	-9,7	-30,6

Iturria: Auto eta Kamioi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte. Anfac

Hiribilduko merkataritza adierazleek bilakaera negatiboa izan dute hiruhileko arteko terminoetan. Enpresa sarea gutxitu egin da (-% 1,6), nagusiki txikizkako merkataritzako enpresa kopurua gutxitu zelako (-% 2,3) eta afiliatuen kopurua ere murriztu egin da (-% 3,0) eta gauza bera gertatu da sektorea osatzen duten hiru azpisektoreetan.

Bilbok galdu egin du merkataritza sektoreko ekoizpen sarea

Urte arteko konparazioan zenbait ezberdintasun daude afiliatuen gehikuntza baieztatu eta gero (+% 0,9), eta horrek esan nahi du txikizkako merkataritzako afiliazioak jokaera ona duela (+% 2,8), enpresa kopuruak atzerakuntza arina izan duen testuinguru batean (-% 0,4). Ondorioz, hiribilduko merkataritza establezimenduen batez besteko enplegua 5,5ekoa da, aurreko hiruhilekoa baino zerbait txikiagoa (5,7).

Merkataritza sektoreko afiliatuak gutxitu egin dira

Bilboko adierazleak

	2021.09	2021.12	2022.03	Δ % hiruhileko artean	Δ % urte artean
Enpresak (afiliazio kontuak)	2.476	2.506	2.466	-1,6	-0,4
Handizkako merkataritza	615	611	612	0,2	-1,3
Txikizkako merkataritza	1.685	1.716	1.677	-2,3	-0,5
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	176	179	177	-1,1	2,9
Afiliatuak	19.437	19.753	19.157	-3,0	0,9
Handizkako merkataritza	4.533	4.433	4.387	-1,0	-3,9
Txikizkako merkataritza	13.739	14.177	13.640	-3,8	2,8
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	1.165	1.143	1.130	-1,1	-2,2
Batez besteko enplegua¹	5,5	5,7	5,5	--	--

1. Batez besteko enplegua: Araubide Orokorrean afiliatutako pertsonak, kotizazio-kontuen guztizkoari dagokionez.
Iturria: Gizarteratzeko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioa GSDN

TURISMOA

Turismo jarduerak berreskuratze prozesu handia izan zuen udan eta urteko azken zatian (2021), eta nahiz eta 2022rako itxaropen onak zeuden, mehatxu berriek baldintzatu egin dituzte, besteak beste gerra gatazkak eta prezioen igoerak, bereziki erregaienak, eta faktore horiek zalantzarritasun handia sortzen dute berreskuratze ekonomikoari dagokionez.

Turismo jarduera pandemia aurreko mailetatik urruti dago oraindik ere

Egoera berri horrek turismoan eragingo du: ziurrenik nazioarteko bidaiak gutxitu egingo dira (kostuarengatik eta aireko espazioko mugengatik), edo kasu onenean, helmuga "seguru" edo "merkeagoetara" bideratuko dira, eta hori onuragarria izan liteke Espainia edo Portugalentzat.

Berreskuratze aurreikuspenak aldatu dituzten arazo berriak

Lehen hiruhilekoan hiribilduan bidaiarien 158.042 sarrera eta 281.994 ostatu gau erregistratu ziren, eta horrek agerian utzi zuen turismo jardura pixkanaka berreskuratzen ari zela, baina, kopuruak 2019koak baino txikiagoak ziren (horixe da "ohiko" urte baten erreferentzia). Zehatzago, bidaiari kopuruak (-% 16,3) eta ostatu gauenak (-% 19,1) hobekuntza tarte handia dute oraindik ere covidaren aurreko balioekin alderatuta.

Sektore turistikoa guztiz berraktibatuko da nagusiki nazioarteko segmentua berreskuratzen denean (48.207 sarrera eta 94.822 ostatu gau), baina, oraindik ere covidaren aurreko kopuruetatik oso urruti dago. Lehenengo hiruhilekoan lortutako emaitza orokorra estatuko segmentuaren rol garrantzitsuarengatik lortu zen (% 69,5 eta % 66,4 sarrera eta ostatu gau guztietatik), baina, covidaren aurreko balio orokorren azpitik jarraitzen du (-% 11,7 eta -% 13,7 sarrera eta ostatu gau).

Baina estatu mailako segmentuaren berreskurapena nabarmentzen da, nazioarteko esparruaren jardun apalaren aurrean

Ostatuko bi sareek berreskuratze sekuentzia argia dute, baina, 2019ko erregistroetatik urrun daude (-% 17,4 eta -% 24,5, hiru izar eta gehiago eta hiru izarrera arte). Hiribilduko batez besteko egonaldia 1,78 egunekoa da, eta nazioarteko bidaiarien artean ratioa askoz ere handiagoa da (1,97 eta 1,70 egun).

Turismoa


	Covid aurrekoa	Pandemia ondorengoa		
	2019.I	III. 2021 bb	2021.IV.bb	2022.I.bb
Ostatu-gauak	348.931	531.074	391.519	281.994
3 izar eta gehiagoko hotelak	262.277	416.368	298.308	216.559
3* baino gutxiagoko hotelak eta apopilo-etxeak	86.654	114.706	93.211	65.435
Estatukoak	216.794	354.632	260.464	187.172
Atzerritarrak	132.137	176.712	131.055	94.822
Bidaiarien sarrerak	188.887	264.467	211.950	158.042
Estatukoak	124.424	171.521	144.775	109.835
Atzerritarrak	64.463	92.949	67.175	48.207
Batez besteko egonaldia	1,85	2,01	1,85	1,78

bb: behin-behinekoa.

Batez besteko egonaldia: ostatu-gauak/bidaiariak (egunak).

Iturria: Estatistikako Euskal Institutua, Eustat

Bidaia-irak eta ostatu gauak hotel establezimenduetan Bilbon



Iturria: Estatistikako Euskal Institutua, Eustat

Turismo eskariak nolabaiteko aurrerakuntza du Bilboren erreferentzia hiriburuetan, baina, bi abiaduratan. Donostian (+% 6,1) eta Gasteizen (+% 0,2) covidaren aurreko garaiko mailen gainetik daude, baina, gainerako hirietan berreskuratzea ez da finkatzen, nazioarteko turismoa ez delako berraktibatzen.

Benchmarkinga. Hotel gauak

	Covid aurrekoa	Pandemia ondorengoa		
	2019.I	2021.III.bb	2021.IV.bb	2022.I.bb
Madril	4.681.444	2.845.284	4.168.969	3.579.284
Bartzelona	4.506.996	3.287.189	3.340.732	3.218.538
Valentzia	880.809	1.114.476	896.497	794.201
Sevilla	1.326.863	354.392	1.205.440	1.083.708
Zaragoza	408.178	405.331	414.530	320.582
G-5 batez-bestekoa (hiriak)	--	--	--	--
BILBO	348.931	531.074	391.519	281.994
Gasteiz	116.404	173.328	146.630	116.600
Donostia	243.707	499.248	339.665	258.471
Iruñea	124.437	116.059	129.298	104.421
G-3 batez-bestekoa (hiriak)	--	--	--	--
G-9 batez-bestekoa (hiriak)	--	--	--	--

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
2020ko datuak ez dira jaso, ez baitira oso adierazgarriak. bb: behin-behinekoa
Iturria: Estatistikako Euskal Institutua, Eustat eta Estatistikako Institutu Nazionala, INE

GARRAIOA

Itsas garraioa

Bilboko Portuak 2022ko lehen hiruhilekoan % 2,7ko urte arteko jaitsiera izan zuen salgaien trafikoa urtarrileko eta otsaileko jaitsieraren ondorioz, eta martxoko emaitza ona ez da nahikoa izan hiruhilekoa positiboan ixteko. Horrekin guztiarekin, lehenengo hiruhilekoan garraiatutako salgaien bolumena 7,4 milioi tonakoa izan zen.

Bilboko Portuak ez du erritmoa berreskuratu (-% 2,7, urte artekoa)

Salgai mota ezberdinei dagokienez, salgai likidoen (salgai guztien % 60,3) trafikoa % 1,6 gehitu zen 2021eko aldi berarekin konparatuta, eta salgai solidoak (guztiaren % 11,1) % 30,5 gutxitu ziren. Alderantziz, salgaiek orokorrean (% 28,3) urte artean jarduera % 4,5 handitu zuten. Bestalde, kudeatutako ontzi kopuruak behera egin du (-% 6,8), baita edukiontzietako salgaien trafikoa (-% 2,1) eta edukiontzien kopuruak (-% 3,7) ere.

Salgaiak itsasoz garraiatzea



Iturria: Estatuko Portuak.

Bilboko Portuko emaitza negatiboak (-% 2,7) estatuko portu sarearen hobekuntza orokorraren (+% 5,6) aurkakoak dira, eta faktore puntualak dira arrazoia (zamatetarien gatazka, Brexitaren inpaktua, desdoikuntzak pandemia ondorengo berraktibaziotik eratorritako itsas fluxuetan, eta abar), eta horien inpaktua txikiagoa izan beharko litzateke hurrengo hilabeteetan.

Aire bidezko garraioa

Loiuko aireportuko jarduerak ez ditu pandemia aurreko balioak lortu, baina, hobekuntza nabaria gertatu da 2021eko lehen hiruhilekoko datuekin alderatuta -une horretan oraindik ere indarrean zeuden mugikortasun muga batzuk-. Zehazki, 690.568 bidaiari izan ziren eta jardueraren zati handiena turismo nazionalak osatu zuen (bidaiarien % 73,4).

Aire bidezko garraioak ez du berreskuratu pandemia aurreko dinamismoa

Horrekin guztiarekin, 2021eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta bilakaera oso aldekoa da bai segmentu nazionalarentzat bai nazioartekoarentzat, baina aldi horiek ezin dira konparatu, izan ere, lehenago aipatu moduan, orain dela urtebete mugikortasun muga handiak zeuden ezarrita.

Hegaldiei dagokienez, urteko lehen hiruhilekoan 7.355 hegaldi egin dira guztira Loiuko aireportuan, eta zifra hori pandemia aurreko "ohiko" hiruhileko baten zifrarekin alderatuta oso txikia da.

Aire bidezko garraioa

	2020.I	2021.I	2022.I.bb	Δ % urte artean	Δ % hiruhileko artekoa
Bidaiariak (kop.)	895.125	148.091	690.568	366,3	-24,9
Hegaldi komertzialak	892.346	146.224	687.978	370,5	-25,0
Estatu mailakoak	551.732	121.740	504.708	314,6	-23,9
Nazioartekoak	340.614	24.484	183.270	648,5	-27,9
Hegaldiak (kop.)	9.234	2.619	7.355	180,8	-16,3

bb: behin-behinekoa

Iturria: Aire Nabigazioko Espainiako Aireportuak, Aena

Aztertutako aireportu taldearekin konparatuz diferentzia gutxi daude estatuko eta EAEko aireportuen jardueretan. Hau da, berreskuratzea gertatu zen 2021ekin alderatuta, baina, pandemia aurreko mailen azpitik geratu zen. Edonola ere, jarduera berreskuratzen doa aldi bakoitzetik bestera eta udako jarduera oso positiboa izango ez dela aurreikusi den arren, ziurrenik 2023an berreskuratuko da guztiz aire mugikortasuna.

Berreskuratze hori baldintzatuko duten hainbat faktore daude. Alde batetik, badirudi pandemia kontrolatzeak mugikortasuna handituko duela, baina beste alde batetik, erreaktibazioak mehatxu berriak ditu, adibidez, bidaiatzeko erabakian gerrak duen inpaktua, prezioen igoera eta nagusiki erregaiarena, eta ondorioz, hegaldietako txartelak garestiagoak dira, telelana finkatzearekin negozio bidaiak gutxitu dira, eta abar.

Mehatxu handiak daude eta hurrengo hilabeteetan aire jardueraren bilakaera baldintzatu dezakete

Benchmarkinga, bidaiariak eta aireportuak

	2019. I	2020. I	2021. I	2022 I bb	% Δ 22/19	% Δ 22/21
Madril	13.443.954	11.035.453	2.569.590	9.125.370	-32,1	255,1
Bartzelona	10.510.173	8.094.549	1.121.910	6.386.203	-39,2	469,2
Valentzia	1.736.089	1.351.168	190.097	1.270.699	-26,8	568,4
Sevilla	1.685.255	1.368.252	155.703	1.266.647	-24,8	713,5
Zaragoza	91.131	82.038	9.454	100.515	10,3	963,2
Metatua G-5	--	--	--	--	-22,5	593,9
BILBO	1.121.705	895.125	148.091	690.568	-38,4	366,3
Gasteiz	30.289	15.844	3.940	37.395	23,5	849,1
Donostia	64.366	51.187	9.719	52.508	-18,4	440,3
Iruñea	48.703	49.930	16.072	33.666	-30,9	109,5
Metatua G-3	--	--	--	--	-8,6	466,3
Metatua G-9	--	--	--	--	-19,7	526,1

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.

bb: behin-behinekoa.

Iturria: Aire Nabigazioko Espainiako Aireportuak, Aena

EKONOMIA PRODUKTIBOA

Barne Produktu Gordina


2021eko laugarren hiruhilekoan Bizkaiko Barne Produktu Gordinak (BPGd) berriz ere hiruhileko arteko igoera izan du (+% 0,9) eta lurraldeko jarduera ekonomikoaren berreskurapena finkatu egin da. Modu horretan, Bizkaiak hobera egin duen ondoz ondoko sei hiruhileko osatu ditu, eta urte bukaeran BPGd-ren urte arteko hazkundea % 5,3koa izan da, 2020an erregistratu zen eta 2022rako atzeratu zen kopuruen zati bat berreskuratuz (-% 9,6). Hortaz, pandemiaren aurreko egoerari dagokionez jarduera ekonomikoa erabat berreskuratzea 2023. urtera arte atzeratu daiteke.

Bizkaiak enpleguaren eta BPGd-ren aurrerapen garrantzitsuarekin itxi du 2021a (+% 5,3 eta +% 5,7)

Lurraldeko enpleguak hobekuntza hori partekatzen du eta 2021. urtea 485.348 lanposturekin itxi du (dedikazio osoko baliokidetzan). Emaita laugarren hiruhilekoko jardun positiboari dagokio (+% 0,5 eta +% 5,1, hiruhileko eta urte arteko tasan). Hala ere, enplegu bolumen hori oraindik 2019ko laugarren hiruhilekoko baino baxuagoa da (-5.916 lanpostu, DOB); tarte hori murriztu egin da 2021ean zehar, eta 2022. urtean zehar ildo horrek jarraituko zuela aurreikusi zen, berreskurapen ekonomikoaren babesarekin.

Gerra gatazkak eta horrek energia merkatuetan eta lehengaien merkatuetan sortzen duen eragin zuzenak inpaktua izango du industria jardueran ¹² eta gainerako sektoreetan. Hala ere, ¹³ EAEko hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapen zifrek ¹⁴ - 2022ko lehen hiruhilekoa-berreskuratze bidea egiaztatzen jarraitzen dute (+% 5,7 eta +% 5,0 BPGd-n eta enpleguan), eta emaitza hori oso adierazgarria izan daiteke Bizkaiarentzat.

Bizkaiko BPGd



Iturria: Iturria: Estatistikako Euskal Institutua, Eustat Hiruhileko kontuak, 2015eko oinarria

¹² Inpaktua lurrean: Eusko Jaurlaritzaren kalkuluen arabera, gatazkaren inguruko dozena bat herrialdetan ezarrita dauden Bizkaiko 235 enpresei dagoeneko erasaten die.

¹³ Eustat, 2022ko apirilaren 25ean argitaratuta

¹⁴ Espainiako hiruhilekoko kontu ekonomikoek (INE) urte arteko hazkundea +% 6,4 eta +% 5,3koa izan dela adierazten dute BPGd-rentzat eta enpleguarentzat (DOB). Baina, hiruhileko arteko terminoetan etxeetako kontsumoaren jaitsiera nabarmena izan da (-% 3,7).

Industria

Urtarriletik otsailera Bizkaiko industria jarduerak hobekuntza bideari eutsi dio eta lau hiruhilekoz jarraian zifra positiboak ditu eta 2021eko bigarren hiruhilekotik aurrera berreskuratze garrantzitsua izan du. Aztertutako azken aldian, industria jarduerak urte arteko % 8,8ko gehikuntza erregistratu zuen.

Bizkaiko industria jarduerak hobetu egin dira orokorrean

Aurreko hiru aldietan ez bezala, oraingoan berreskuratzea industria jarduera guztietan gertatu zen. Zehazki, manufakturen industriak zehazten du hein handi batean Bizkaiko industria jardueraren bilakaera, eta urte arteko % 5,6 hazi da. Bestalde, ekoizpen indizeak % 66,7ko hazkundea izan du erauzketa industrietan eta % 30,5ekoa energia, lurrin eta gasean. Azkenik eta bi denboralditan negatiboan egon ondoren, urak urteko lehen bihilekoan % 9,7ko gehikuntza izan du.

Kontuan hartu beharrekoak: Industria jardueraren bilakaera urteko lehen bi hilabetei dagokiena da, eta oraindik ez ziren agertu sektoreari epe motzean zuzenean eragiten dieten askotariko gertakariak. Alde batetik, martxoaren 14an hasi zen garraio greba. 20 egun iraun zituen eta erregaiaren prezioak etengabe igotzen ari zirelako hasi zen, eta enpresa batzuk halabeharrez gelditu behar izan ziren produktu eta lehengaien hornidura falta zelako. Gainera, Ukrainako gerrak eta energia horniduran izan duen inpaktuak eta bere prezioak sektoreko enpresen eguneroko jardura baldintzatu dute. Faktore biak erabakigarriak izango dira hurrengo hilabeteetako industriaren bilakaeran.

Garraio greba eta Ukrainako gerra erabakigarriak izango dira hurrengo hilabeteetan

Industria

Urtetik urterako aldakuntza tasa, %

	2021.I	2021.II	2021.III	2021.IV	2022.I.bb
Ekoizpen tasa	-3,7	30,9	7,8	5,6	8,8
Manufaktura industria	-2,2	37,9	11,7	2,6	5,6
Erauzketa industriak	11,6	36,6	39,6	28,6	66,7
Energia, gasa eta lurrina	-16,5	-4,2	-13,5	30,7	30,5
Ura	-4,9	7,4	-8,2	-6,1	9,7


Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta. Erreferentziazko aldiko agregazio-adierazlearen urte arteko aldakuntza 2022ko lehenengo hiruhilekoko datuak urtarilekoak eta otsailekoak dira.
Iturria: Estatistikako Euskal Institutua, Eustat

Merkatuko zerbitzuak

2021. urtean Bizkaiko merkatu zerbitzuen sektorearen berreskurapen profila berretsi da, eta goranzko ondoz ondoko hiru hiruhileko osatu ditu; hala, urtea bukatzean salmenten urte arteko igoera % 14,2koa izan da. Hortaz, laugarren hiruhilekoko zerbitzuen sektoreko indizea 118,3 puntuetara iritsi da; zifra horrek aurrerapen handia dakar aurreko hiruhilekoetan izandakoekin erkatuta eta pandemia aurreko balioetara gerturatzen da. Joera horri eutsiz gero, pentsa daiteke hurrengo hiruhilekoetan indize horren balioa 100-115 puntuen inguruan finkatuko dela murritzeta neurriak pixkanaka arintzearekin bat etorritz, horrek normaltasun agertokira itzultzea aurreratuko lukeelako, eta hori faktore gakoa da zerbitzuen sektorean integratutako jardueren berreskurapenean.

2021. urtean Bizkaiko merkatu zerbitzuen jardueraren berreskurapena finkatu da

Merkatuko zerbitzuen salmentak



Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta. Uneko urteko behin-behineko datuak (2021).
Iturria: Estatistikako Euskal Institutua, Eustat Zerbitzuen salmenten indizea, oinarria: 2015

Hirugarren sektorea osatzen duten jardura guztiek laugarren hiruhilekoan erregistratutako hobekuntza sekuentzia partekatzen dute, eta ostalaritzako jarduerak (+% 50,0) eta garraio eta biltegiatze jarduerak (+% 31,7) izandako emaitza positiboak nabarmendu behar dira, urte arteko igoerak oso garrantzitsuak izan baitira; horri administrazio jardueren eta zerbitzu osagarrien jardura (+% 7,4) eta informazio eta komunikazio jardura gehitu behar zaizkio (+% 1,8). Aitzitik, jardura profesional, zientifiko eta teknikoen jardueraren segmentuak atzera egin du (-% 4,9); aurreko hiruhilekoan ere nolabaiteko moteltzea ikusi zen kasu horretan (+% 0,6).

Sektoreko enpleguak bilakaera positiboa partekatzen du eta urte arteko aurrerapen leuna izan du (+%0,4), 2017ko amaieratik lanpostuak etengabe galdu ondoren eta pandemian (2020) okerrera egin eta gero.

Merkatuko zerbitzuak

	Urte arteko aldakuntza tasa, %			
	2021.I	2021.II	2021.III	2021.IV
Merkatuko zerbitzuak	-8,4	21,2	11,2	14,2
Garraioa eta biltegiatzea	2,4	35,2	26,9	31,7
Ostalaritza	-31,5	70,0	13,1	50,0
Informazioa eta komunikazioak	-1,2	2,9	0,6	1,8
Jard. profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	-5,2	8,0	0,6	-4,9
Administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak	-18,6	11,7	8,4	7,4
Landunen indizea	-3,9	-0,8	-1,0	0,4

Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta. Uneko urteko behin-behineko datuak (2021).
Iturria: Estatistikako Euskal Institutua, Eustat Zerbitzuen salmenten indizea, oinarria: 2015

Kanpoko merkataritza

Bizkaiko kanpo jarduerak urteko lehen hilabeteetan aurreko aldietan hasitako hazkunde joera mantentzen du eta pandemia aurreko balioen gainetik dago. Zehazki, urtarrileko eta otsaileko esportazioak 1.943,5 milioi eurokoak izan ziren, hau da, urte arteko % 34,2ko hazkunde gertatu zen. Inportazioen joera dinamikoagoa izan zen, eta urte arteko % 58,5eko hazkundearekin, 2.375,4 milioi eurokoak izan ziren.

Bizkaiko kanpo
jarduerak hazten
jarraitzen du

Berreskurapeneko dinamismoa argia da energetikoa ez den osagaian (+% 25,5) eta inportazioetan (+% 53,1), eta hurrenez hurren guztiaren % 84,8 eta % 61,2 dira. Hala, Bizkaian energetikoa ez den merkataritza saldoak superabita du (+194,5 milioi euro), eta estaldura tasa % 113,4koa da. Modu horretan, urte hasieran baieztatu egingo litzateke kanpo merkataritzaren berreskuratzea, izan ere, esportazioek eta inportazioek 2019ko mailak gainditu dituzte (+% 22,2 eta +% 34,4).


Kanpoko merkataritza

	Balioa (milioi euro)			Urtetik urterako Δ (%)	
	2021.III	2021.IV	2022.I. ¹	2021.IV	2022.I. ²
Esportazioak, guztira	2.573,7	2.654,5	1.943,5	31,9	34,2
Esportazio ez energetikoak	2.150,0	2.269,4	1.647,4	25,3	25,5
Inportazioak, guztira	3.083,4	3.548,6	2.375,4	78,0	58,5
Inportazio ez energetikoak	1.894,1	2.034,6	1.452,8	47,6	53,1
	Partaidetza ratioa, %			Ehuneko Pren aldakuntza	
esp. ez-energetikoen % / esp. guztira	83,5	85,5	84,8	-4,5	-5,9
inp. ez-energetikoen % / inp. guztira	61,4	57,3	61,2	-11,8	-2,1

1. Urtarrileko eta otsaileko behin-behineko datua. 2. lazko urtarilla-otsailarekin alderatuta
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Kanpo jardueraren berreskurapena bat dator lurraldeko berreskurapen ekonomikoarekin eta esportazioen balioak Bizkaiko BPGd-ren % 25,7 adierazten du 2021eko laugarren hiruhilekoan. Ratioa % 26,2ra igotzen da urte osoari dagokionez, eta ekarpen horrek gainditu egin ditu¹⁵ 2019 eta 2020ko erregistroak (% 24,3 eta % 21,8) eta 2017-2018 biurtekoan erregistratutako balioetara gerturatzen da (% 25,9 eta % 27,7), lurraldean esportazio jardueran dinamismo garrantzitsua izanik.

Esportazioaren ratioa BPGd-rekin alderatuta (%). Bizkaia



Iturria: Datacomex (Merkataritza Estatuko Idazkaritza) eta Hiruhilekoko Kontuak (Eustat, oinarria: 2015)

Hala ere, Errusia-Ukraina gerraren inpaktu zuzenak zalantzan jar dezake kanpo jardueraren berreskurapena, inplikaturako bi herrialdeekiko harreman komertzialei modu negatiboan egin dielako kalte. Batetik Errusia, herrialde erasotzaileari ezarri zaizkion zigor finantzario eta komertzialengatik, eta, bestetik, Ukraina lehengaiak eta zerealak esportatzen dituen herrialde nagusietako bat delako (eskasia eta prezioen igoera). Baina, nazioarteko merkataritza hondatzeak jarduera guztiei erasango die, mundu mailako jardun ekonomikoa baldintzatuko baitu, luze eta zabal elkar konektatutakoa.

Baina Errusia-Ukraina gerrako zuhurtziaz, berreskurapena atzeratu egingo baitu

¹⁵ Nabarmendu behar da ratio hori zenbatzailearen eta izendatzailearen jokabideren arabera dela: normalean, hazkunde ekonomiko handiko uneetan (batez ere zerbitzuen osagaiari esker gertatzen dena), ratio horrek behera egiten du; ekoizpen industrialak azaltzen du esportazioak pisu erlatibo txikiagoa izatea, handia dirudien arren. 2020. urtean ratioaren bi osagaien beherakada izan zen, eta 2021ean industria jarduerak hobera egin du; zerbitzuen jardura, aldiz, motelago joan da.


JARDUERA EKONOMIKOAK

Sozietate berriak

Merkataritza sozietate berrien sorkuntzak % 35eko hazkundeak izan zuen 2022ko lehen hiruhilekoan (urte arteko aldakuntza) eta pandemia aurreko balioak berreskuratu zituen. Zehazki, 216 sozietate berri eratu ziren 2022ko urtariletik martxora, 2021eko lehen hiruhilekoan baino 56 gehiago eta 2019ko aldi berean baino 13 gehiago.

Bilbok sozietate berriak eratzeko gaitasuna berreskuratu du

Merkataritza sozietate berriak



Iturria: Merkataritza Erregistroa

Eratutako sozietate berrien gehikuntzan eragina izan dute maila handiagoan edo txikiagoan jardura sektore guztiek. Hala, industrian eta energian 14 sozietate berri sortu ziren (urte arteko +% 7,7), eraikuntzan 23 baino gehiago eratu ziren (urte arteko +% 27,8) eta zerbitzuetan 178 (+% 39,1). Lehen sektoreak ia ez du aldaketarik izan eta sozietate berri bat sortu zen.

Zerbitzuen sektorea bereiziz eta sortutako sozietate berrien bilakaerari dagokionez, finantzaketa bitartekaritza jardueretan (4 sozietate) eta beste zerbitzuetan (24 sozietate) aurreko urteko hazkundeak baino txikiagoak gertatu ziren, eta merkataritza eta konponketan (32 sozietate), higiezin eta zerbitzuen jardueretan (78 sozietate) eta garraioan eta biltegiatzean (21 sozietate) bilakaera aldekoagoa izan da sozietate berriak sortzeari dagokionez.

Sozietate berriak

	2022.I	Δ %	
		hiruhileko artekoa	urte artean
Merkataritza sozietate berriak	216	24,9	35,0
Lehen sektorea	1	0,0	0,0
Industria eta energia	14	-30,0	7,7
Eraikuntza	23	0,0	27,8
Zerbitzuak	178	38,0	39,1
Merkataritza eta konponketa	32	39,1	52,4
Ostalaritza	19	26,7	0,0
Garraioa, bilteg., komunikazioak	21	425,0	600,0
Finantza bitartekaritza	4	-60,0	-69,2
Jar. Higiezinaren alorreko jarduerak eta enpresentzako zerbitzuak	78	50,0	90,2
Beste zerbitzu batzuk	24	-4,0	-22,6

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Azkenik, 2022ko lehen hiruhilekoan 139 sozietate desegin ziren eta zifra hori 2021eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta % 40,4 handiagoa da (40 sozietate gehiago desegin dira). Sektoreen arabera, zerbitzuetan gertatu dira desegite gehien (109 sozietate) eta horien artean nabarmentzekoak dira higiezinaren eta enpresa zerbitzuen jarduerak (43), eta merkataritza eta konponketak (21), eta bien artean likidatutako zerbitzu sozietateen % 59 dira.

Desegindako sozietateak

	2022.I	Δ %	
		hiruhileko artekoa	urte artean
Desegindako merkataritza sozietateak	139	32,4	40,4
Lehen sektorea	1	--	--
Industria eta energia	14	133,3	75,0
Eraikuntza	15	-11,8	7,1
Zerbitzuak	109	32,9	41,6
Merkataritza eta konponketa	21	23,5	23,5
Ostalaritza	3	-40,0	-40,0
Garraioa, bilteg., komunikazioak	18	800,0	800,0
Finantza bitartekaritza	16	45,5	166,7
Jar. Higiezinaren alorreko jarduerak eta enpresentzako zerbitzuak	43	43,3	59,3
Beste zerbitzu batzuk	8	-52,9	-60,0

Iturria: Merkataritza Erregistroa

2022ko I. hiruhilekoa

		Adierazleak	
	Azken datua	Δ Urte artekoa (%)	Aldia
LAN MERKATUA			
Biztanleria aktiboa (milakotan)**	173,7	9,9	I. hiruhilekoa
Landunak (milakotan)**	157,6	13,3	I. hiruhilekoa
Biztanleria langabea (milakotan)**	16,1	-14,8	I. hiruhilekoa
Langabezia-tasa (%)**	9,29	-2,70*	I. hiruhilekoa
Erregistratutako biztanleria langabea (pertsona kop.)**	22.739	-9,8	martxoa
Afiliatuak (kop.)	182.949	3,2	martxoa
Erregistratutako kontratuak (kop.) **	31.248	19,8	I. hiruhilekoa
MERKATARITZA			
Biztanleria afiliatua	19.157	0,9	martxoa
Kontsumo prezioak (indizea)***	107,7	10,0	martxoa
TURISMOA			
Ostatu gauak (kop.)	281.994	203,8	I. hiruhilekoa
Bidaariak (kop.)	158.042	189,8	I. hiruhilekoa
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaariak)	1,78	4,8	I. hiruhilekoa
GARRAIOA			
Salgaien itsas garraioa (mila tona)	7.416,3	-2,7	I. hiruhilekoa
Bidaariak airez garraiatzea	690.568	366,3	I. hiruhilekoa
ENPRESA JARDUERA			
Industria-produkzioa (indizea)**	223,0	8,8	urtarrila-otsaila
Merkataritzako sozietate berriak (kop.)	216	35,0	I. hiruhilekoa
Desegindako sozietateak (kop.)	139	40,4	I. hiruhilekoa

* Puntu portzentual.

** Bilbon bizi den populazioa.

***Bizkaiari dagokion adierazlea. KPIren bilakaera, erreferentziatzeko aldiko agregazio indizean oinarrituta. Oinarritzko urtea aldatzea (2021)
Iturria: Geuk egindakoa, erakunde hauen datuetan oinarrituz: Eustat, SEPE, Lanbide, Gizarteratze, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioa, EIN, Estatuko Portuak, Aena eta Merkataritza Erregistroa.